

Aiurri

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Abenduaren 26tik 30era Arratsaldeko 20:00etan
ikuszirkus

2016ko abenduaren 30a, 506 zenbakia XI. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

ZIRKOA ANDOAINGO BASTERON

Gabon kantari kalez kale eta baserri baserri, ohiturari eutsiz



Egape ikastolaren sorrera eta Olentzeroren abiatzea garai bertsuan izan zirenez, abenduaren 24an Egapek Olentzero omendu zuen eguerdiko kalejira abiatu aurretik.



Leizotz eta Goiburu aldean urtero kantuan aritzen den gazte koadrila, Txertota baserriaren parean. Eguerdi aldera jaitsi ziren herrigunera.

Olentzero eta Mari Domingi abenduaren 23an eta 24an iritsi ziren.

Eguberria igarota, haur aisialdiaren eskaintza zabalda izango da Andoain eta Urnieta herrietan.

Euskal tradizioaren ikuspegitik, egun magikoak igaro dira. Olentzero eta Mari Domingi abenduaren 23an iritsi ziren Urnietara, eta abenduaren 24an Andoainera. Bietan astoa lagun etorri ziren, haur eta guraso askoren begiradapean.

Bi herrietako kale, auzo eta baserri eremuetan ohitura zaharra biziberritzeko aukera berria izan zen. Urnietan, esaterako, Egape ikastolaren sorrera eta Olentzeroren abiatzea garai bertsuan izan zirenez, abenduaren 24an Egapek

Olentzero omendu zuen eguerdiko kalejira abiatu aurretik. Ikastetxeen kalejira ezberdinak edota lagun koadrilak hara eta hona ibili ziren Eguberria iragarri.

Argazkiak eta bideoak aiurri.eus gunean ikusgai daude.

Oianume eta Sorondo nagusi



İnistor taldeak antolatzen duen Santomas eguna inoizko jendetsuena izan zen. Hauexek eguneko emaitza aipagarrienak:

Usadiozko sagardo lehiaketa:

1. Oianume 93.5 puntu
2. Errotaburu 84 puntu
3. Pagoaga 83 puntu

Sagardo botilaren enkantea:

1. Angelo Jimenez 20 euro

Sagar tarta lehiaketa:

1. Manoli Sorondo
2. Mari Karmen Zubeldia

Eguberrietako saskia (700 euro):

Axun Izagirre 2830 zenbakia

Gaztaren kiniela:

Kantoi (1440 gramo) 91 kiniela Irabazlea: Daniel Sasiain (1438).

Guria (1565 gramo) 87 kiniela Irabazlea: Cesar II Koka (1560).

[URNIETA, 2-3. ORRIALDEAK]

San Silbestre Andoainen eta Urnietan



Andoainen eta Urnietan duela gutxi hasi ziren lasterketa antolatzen. Andoainen goizez izango da, eta Urnietan arratsaldez.

Bi herrietan lasterketa umorez egiteko gomendioa luzatzen dute eta moztarri onenari saria eman-

go diote. Ekimen berria da Andoainen zein Urnietan, eta gaur gaurkoz biak ala biak arrakasta handiko lasterketak dira. Aurtengoan ere jendetza espero da bi herrietan, abenduaren 31n.

ANDOAIN

11:30 Zumea plaza.

URNIETA

16:00 San Juan plaza.



Adarrara igoera

Ohiturari jarraituz, Euskalduna mendigoizale taldekoak Urteberri egunean Adarran egongo dira bertaritzen diren mendizaleei salda beroa eskaintzen: "Urtea ondo hasteko ez da plan txarra... Urteberri zorian-tsuia guztiontzat!".



Gipuzkoako ekonomia, eskualdez eskualde

Andoaingo solasaldia
 [2016-12-20] ikusgai:
Ekonomiagurean.eus

TOKIKOM



Aiurri

Inoizko parte hartzerik handiena Santomas egunean

Sagardoa, taloa, gaztaina, sagar tarta eta txistorraren inguruan festa ederraz gozatzeko aukera izan zuten Santomas egunean San Juan plazara hurbildu zirenek. Lurdes Iriondo musika eskolako tri-

kiti doinuekin hasi zen festa, eta sagardo botila onenaren enkantearekin amaitu. Tartean jai giro ederrean igaro ziren lau ordu. Inoizko parte hartzerik handienarekin igaro da aurtengo edizioa.

Badira egutegian errotzeko urteak behar dituzten hitzorduak. Inñistorrak antolatzeko duen Santomas eguna hitzordu horietakoa da. Eta poza ematen du urtez urte izan duen garapena ikusteak. Dagoeneko urnietar askoren buruan dagoen data seinalatua, eta urteroko hitzordua biziberritzeko San Juan plazara hurbiltzen dira. Aurtengoan marka guztiak hautsi dira, ehunka litro sagardo, hainbat kilo txistorra eta dozenaka talo saldu zirelako. Taloarekin, esaterako, ilara luzeak sortu ziren. Jaira hurbildutakoek, bestalde, ikusmin handiarekin jarraitu zuten sagardo lehiaketaren epaia. Aurtengoan hamahiru sagardogilek izena eman zuten, honako hauek: Antso, Errotaberri, Elutseta, Altzibar, Montefrio, Bidegurutzeta, Pagoaga, Garmendi, Saurdei, Errotaburu, Oianume, Milluts eta Sorozabal. Sariketan izena azkena eman zuen **Oianume** izan da aurtengo irabazlea, ondorengoei alde handia ateraz. Sagar tarta lehiaketan, beste behin ere, **Manoli Sorondo** izan zen garailea. Garaitezina dirudi.

Eguberrietako saskia, 700 euroko balioa zuena, Axun Izagirre irabazi zuen 2830 zenbakidun txartelarekin.



Dagoeneko Santomas urnietar askoren buruan dagoen data seinalatua da, eta urteroko hitzordua biziberritzeko San Juan plazara hurbiltzen dira.

Ospakizuna Inñistorra elkartearen eskutik



Isidro Salinas, Antton Lekuona eta Rosa Elozegi.



Juankar Erasun eta Joxeba Lizeaga.



Jon Unanue eta Koldo Tapia.

Tamaina horretako ospakizuna egiteko lana gogotik egin beharra dago. Modu batera eta bestera lanean aritu zirenei esker ona adierazi nahi die Inñistorrak. Sagardo lehiaketako epaimahaia: **Aingeru Altuna, Aritz Arano, Nagore Brel, Joxe Mari Iturbe, Mikel Izagirre, Lourdes Urruzola.**

Tarta lehiaketako epaimahaia: **Pili Brandariz, Petra Elser, Juanfran Pardavila, Amaia Usabiaga.** Lurdes Iriondo musika eskolako trikitilariak: **Ane Arruti, Aintzane Elozegi, Edurne Orbegozo, Olatz Gorroño.** Talogileak: **Izaskun Alcalá, Mari Karmen Almorza, Mari Karmen Altuna, Kontxi Aran-**

buru, Susana Barrera, Sary Gutierrez, Arantxa Iturrioz, Joxemari Iturzaeta, Axun Zubeldia. Gaztaingileak: **Andoni Garmendia, Juankar Erasun.** Txistorra eta sagardo saltzaileak: **Rosa Elozegi, Antton Lekuona, Isidro Salinas, Jon Ander Ubeda.** Inñistorraren postuan eta esatari lanetan: **Joxeba Lizea-**

ga, Koldo Tapia, Jon Unanue. Tartagileak: **Amaia Lopez, Mariano Mujika, Olatz Petrina, Manoli Sorondo, Joxemari Sorron, Mari Karmen Zubeldia.** Sagardogileak: **Antso, Errotaberri, Elutseta, Altzibar, Montefrio, Bidegurutzeta, Pagoaga, Garmendi, Saurdei, Errotaburu, Oianume, Milluts, Sorozabal.**

SANTOMAS OSPAKIZUNA IRUDI BIDEZ



Talogileek lana gogotik egin behar izan zuten eskaera guztiei erantzuna eman ahal izateko.



Sagar tarta lehiaketak ikusmina piztu zuen. Razio guztiak saldu ziren, azkar batean.



Sagardo adituak ekimen betean.



Oianume: 93,5 puntu. Errotaburu: 84. Pagoaga 83. Zorionak!



Manoli Sorondo tartagilea garaitezina dirudi. Zorionak!



Axun Izagirre, 2830 zenbakidun txartelarekin, saskiaren irabazlea.



Angelo Jimenezek 20 euro ordaindu zituen botila onenarengatik.



Kantoiko gazta Daniel Sasiain "Txinparta" k eskuratu zuen.



Joxe Mari Iturzaeta sukaldean, taloetarako txistorra frijitzen.



Banaiz Bagarako kideek munduko gozogintza ekarri zuten plazara.



Andoni Garmendia gaztaingilea lan eta lan aritu zen.

Musika eta dantza Olentzero eta Mari Domingiren etorreran

Olentzero eta Mari Domingi astoa lagun etorri ziren Urnieta aldera. Berrasoetara iritsi zirenetik ez ziren bakarrik egon, lagun asko dituzten seinale. Egape dantza taldeko kideak, Txanbolin eta Anaba-

sa taldeko kideak, On Bosko banda..., dozenaka lagunena babesarekin kalejira egin zuten herrian barrena. San Juan plazara iristerako, haur eta gurasoz osaturiko ilara luzea zain zuten.

Olentzero eta Mari Domingi gogotsu etorri ohi dira Urnieta, eta inguruko herrietara abenduaren 24an joaten direnez, patxada handiz hartu ohi dute Urnieta egindako bisitaldia. Arratsaldeko 18:00ak aldera Berrasoeta aldetik han agertu ziren, astoa lagun. Eta hortik San Juan plazaraino lagunaz inguratuta egin zuten bidea. Dantzari eta musikari finak alboan, ia hiru orduko saioa egin zuten kalez kale. Edu Muruamendiarazek zuzenduta, Egapeko gurasok saio ederrak eskaini zituzten. Idiazabal kalean, Zubitxo plazan edota, Etxeberrieta plazan aritu eta gero, San Juan plazara igo ziren. Hara iristerako ilara luzea zuten zain. Haur eta guraso asko baitzegoen Olentzero eta Mari Domingirekin argazkia ateratzeko gogoz.

MARI DOMINGIREN MEZUA

Idiazabal kalean Aiurriko kazetariak Mari Domingiren adierazpenak jaso zituen, Urnieta haurrei eskainitakoak: "Urnieta haurrak zoriontsuak izan! Nahiz eta egun hauetan opariak banatzen lan asko izan dugun, gu ere zoriontsu gara. Aurten Urnieta haurrak oso jator portatu dira, opari ugari izango dituzte".

Adierazpen horiek eta kalejirako une gehiago Aiurri.eus gunean ikusgai daude, irudiz eta bideoz.



Olentzero eta Mari Domingiren kalejira girotzen aritu zen talde osoa: Txanbolin eta Anabasa, On Bosko banda eta, nola ez, Egape dantza taldea.



Edu Muruamendiaraz zuzendariaren esanetara, saio txukuna eskaini zuten Egape dantza taldeko gurasoek Olentzero eta Mari Domingiren etorreran.



Astoa lagun eta musikariz eta dantzariz inguratuta, kalejira jendetsua egin zuten herrigunean zehar. Plazara iristerako jendetza zuten zain.

Gabon kantari herrigunean

Olentzero eta Mari Domingi Urnietara iritsi eta biharamunean Gabon kantari irten ziren ikastetxeak eta lagun koadrila ezberdinak. Eguerdiko 12:00ak iristear zirela, euriaren mehatxupean, Txanbo-

lin taldeak kalejira gidatu zuen San Juan plazatik abiatuz eta amaituz. Kalejira itxiz, Lurdes Iriondo musika eskolako trikitilariak gogotsu aritu ziren.



San Juan plazatik behera itzulingurua egin zuten, Txanbolin taldeko txistulariei segika.



Neska taldea txandaka aritu zen kalez kale, Olentzero bizkarrean hartuta.



Lurdes Iriondo musika eskolako trikitilariak.



Ibilbidean zehar denak elkarrekin kantuan aritzeko geldialditxoak egin zituzten.

GABONETAKO LEHIAKETAREN SARI BANAKETA EKITALDIA



Sari banaketa ekitaldia Lekaion egin zuten, Santomas egunean. Aiurri.eus gunean argazki gehiago ikusgai.



Adarrara igoera edota Errege Magoen kabalgata

Eguberriak Urnietan

Abenduak 29, osteguna

- Sormen txokoa. 11:00-13:00 Lekaio.
- Sormen topagunea. 17:30-19:00 Lekaio.
- Ilunpeko pista jolasa. 18:00-21:00 Gaztelekua.
- Urnietako eta Donostiako musika eskola ikasleen emanaldia. 18:30 Kontzejupea.

Abenduak 30, ostirala

- Eskubaloi partidak egun osoan zehar kiroldegian eta pilotalekuan.
- Patata tortilla lehiaketa, bazkaria. 10:00-15:00 Gaztelekua.
- Sormen txokoa. 11:00-13:00 Lekaio.
- Sormen topagunea. 17:30-19:00 Lekaio.
- Adarbakar urdina txotxongilo saioa, 3 urtetik gorako haurrentzat. 17:30 Lekaio.

Abenduak 31, larunbata

- San Silbestre Poxta Zahar, Zanpatuz eta Pausoka taldeen eskutik. 16:00 Haurrak. San Juan plaza. 16:30 Helduak. San Juan plaza.

Urtarrilak 1, igandea

- Ohi bezala, Euskalduna mendigoizale taldeak salda banatuko du. 09:00 Adarra.

Urtarrilak 2, astelehena

- Adarrara igoera. 09:30-14:30 Gaztelekua.
- Txoborro magoa. 17:30 Lekaio.

Urtarrilak 3, asteartea

- Tailerra, inauterietarako prestaketa. 10:00-14:00 Gaztelekua.
- Haur parkea. 16:30-18:30 Kiroldegia.

Urtarrilak 4, asteazkena

- Puzgarriak Kiroldegian. 11:00-13:00 / 16:30-19:00.
- Irteera Txuri Urdinera. 10:00-18:00 Gaztelekua.
- "Idiot Txou" antzerkia. 19:30 5 euro. Sarobe. Sarrerak dagoeneko salgai eta emanaldia hasi baino ordu erdi lehenago leihatilan.

Urtarrilak 5, osteguna

- Kabalgata herrian barrena. 16:00-17:30 Erregeei harrera elizan.
- Errege Magoen desfilea. 18:00 Erratzuko zubitik hasita.
- Errege Magoen opari banaketa. 19:00 Kontzejupean.

Urtarrilak 8, igandea

- "Ice Age. Gran cataclismo" filmaren bi emanaldi. 16:00-18:30 Sarobe.

Egape ikastolaren eskutik iritsi zen Urnietara

Olentzerori omenaldia



Egape ikastolako ikasleak eta gurasoak, taldeko argazkian.

Egape ikastolaren 50. urteurrenarekin batera, abenduaren 24an Olentzerori omenaldia egin zioten. Izan ere, ikastolakoek bidalitako oharraren arabera, Olentzero duela 50 urte Urnietako kale eta baserriak alaitzen hasi zen, Egaperen eskutik.

FERMIN ARGIÑARENAREN BERTSOAK

Abenduaren hogeitalaua irrikaz dugu espero. Egape sortu zen egunetik txintxo etortzen urtero. Bihotz oneko eskuzabala, ezagutzen onezkero Urnietako ume guztiak maite dute Olentzero.

Berrogei eta hamar urteak alperrik ez dira pasa, neska-mutiko euskal hiltzunez beteta herriko plaza. Ikatza bezain beltza geroa, ez nago batere lasa. Hitz egitea gerta liteke euskerarentzat arnasa.

Urnietako baserritarrak, aurtengo protagonista

Neguko azoka



Urnietako baserriak omendu zituzten Neguko azokan. Baserritar ugari hurbildu zen hitzordura.

Abenduaren 23an Egape ikastolak ikasturteko lehen hiru hilebeteari amaiera eman zion Neguko azokaren antolaketarekin. Aurtengo edizioak ukitu berezia izan zuen, Ikastola 50 urteurrena ospatzen ari delako. Hori dela eta egitarauan jarduera berriak agertu ziren. Horietako bat Urnietako baserrien erakusketa izan zen. "Baserriko epeletik urnietarron bihotzera" lelopean, Ikastolak Urnietako baserriak omendu nahi izan zituen. Hama-

zazpi baserrietatik hurbildu ziren azokara: Adarrazpi, Aierdi, Altzibar, Altzibar Berri, Arizmendi, Azkonobieta, Enbutegi, Garmendi, Goibieta, Goiburu, Montefrio, Oiamar, Oiarbide, Ormazarreta, Pagolderdi, Sagasti eta Xabordegi.

Ikasleek mota ezberdinetako jardueretan parte hartu zuten: Gabon kantak, trikitixa, bertso emanaldiak, irrintzi lehiaketa, txorimaloen erakusketa, herri kirolak...



Gipuzkoako Foru Aldundia

San Silbestre Andoainen, goizeko 11:30ean hasita

Urtea korrika amaitu



Lasterka itzuli ekimenak antolatuta, bigarren edizioa ospatuko da Andoainen.

Goizeko 11:30ean hasita, San Silbestreren bigarren edizioa antolatuko du Lasterka itzuli ekimenak Andoainen. Txitibar plazan hasi eta bukatuko da aurtengo lasterketa eta antolatzaileek 2016ko ediziorako bi berrikuntza iragarri dituzte. Lehenengoa ibilbideari loturikoa da. Distantzia bertsua izanagatik ere, ibilbidea luzatu egin dute eta lasterketak iaz baino itzuli bat gutxiago izango du. Txitibar plazatik Gaztetxerainokoa izango da ibilbidea, bi itzulikoa, eta denera 5.250 kilometrokoa.

Bestetik, aurtengo mozorro politena edo originalena sarituko dute.

Izen-ematea 5 eurokoa izango da eta denda eta taberna ezberdinek emandako opariak zozketatuko dituzte. Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete opariak emango dituzten tabernari eta dendariei eta baita babesleei ere. Honako hauek: Mapfre aseguruak, Urrats inprimategia, Pinturas Ferro, Otamendi taillerrak, Olajauna taberna, Belkoain-Azpi taillerrak, Bengoetxea autoeskola, Ciclos Patxi, Cericamas Javier eta Irunberri elkarteak.

Urte berria mendian hasi



Euskaldunako Maria Isabel Santa Cruz, Fernando Gonzalez eta Arantxa Garmendia 2014ko irudian.

Bezperan bapo afaldu arren eta negu giroan egon arren, Urteberriarekin Adarrara igotzea eskualdeko eta donostialdeko herritar askoren ohitura da. Igotzeak saria dakar, gainera. Eta ez nolanhikoa! Salda beroa, Euskalduna mendigoizale taldeko Fernando Gonzalezek eta Maria Isabel Santa Cruz andoaindarrek urtero-urtero eskaintzen dutena. Aiurrin aurreko urte-

etan adierazi duten bezalaxe, hamabost egun lehenago hasten dira azpiegitura guztia Adarrako puntara eramaten. Urtezahar goizalderako uzten dute salda igotzea.

Euskalduna mendigoizale taldeak aurtengorako ere gonbidapen zabala egin du: "Urtea ondo hasteko ez da plan txarra.... Urteberri zoriontsua guztiontzat!"



Alberto Agirre eta Olagain zuzenean, hilaren 29an

Eguberriak Andoainen

Abenduak 29-Urtarrilak 5

■ Salkin Andoaingo merkatarien Eguberrietako kanpaina: Gabonetako 45 sorta irabazteko aukera. Urtarrilaren 5a, parte hartzeko azken eguna da.

Abenduak 29-Urtarrilak 7

■ Marmar Pop up gunea zabalik, Kaleberrian. Moda, diseinua, diskoak, ardoa. Astelehenetik larunbatera zabalik.

Abenduak 29, osteguna

■ Gazte Astea:
09:30 Street art Gazte Lokalean.
17:00 Zumba erakustaldia Gazte Lokalean.
■ "Eguberri kontzertua". Alberto Agirre abesbatza eta Olagain txistulari taldea.
19:00 Santa Krutz eliza.
■ "Sconcerto D'Amore". Nando & Maila.
20:00 IkusZirkus. Bastero.

Abenduak 30, ostirala

■ 16:00-20:00 Gabonetako Haur Parkea Allurralden. Biharamunean, Goizez eta arratsaldez.
■ 16:30 Kale animazioa dultzaineroekin. Ibilbidea: Karrika-Zumea plaza.
■ 16:30-18:00 Pajeen irteera Errege Magoei zuzendutako eskutitzak jasotzeko.
La Salle Berrozpe ikastetxeak antolatuta, ibilbidea Sorabillan hasiko

da eta herrigunea zeharkatu eta gero Goikoplazan amaituko da.

■ "Emportats", La Trócola Circ: 20:00 IkusZirkus. Bastero.

Abenduak 31, larunbata

■ 11:00-14:00 Gabonetako Haur Parkea Allurralden.
■ 11:00-13:00 Kale animazioa txistulariekin.
■ 11:30 San Silbestre lasterketa Zumea plazan. 5 kilometroko ibilbidea, mozorro giroan, Lasterka itzuli elkartearen eskutik.
■ 16:00-19:00 Gabonetako Haur Parkea Allurralden.
■ 19:00 "Etxean nahi ditugu" enkartelada, Goikoplazatik.
■ 00:45-04:00 Urtezahar gaueko DJ festa Nafarroa plazan.

Urtarrilak 3, asteartea

■ Gazte Astea:
10:00 Gazte erronka Goikoplazan.
15:00 Gazte erronka Goikoplazan.

Urtarrilak 4, asteazkena

■ 10:00 Master Txef lehiaketa eta bideo emanaldia Gazte Lokalean.

Urtarrilak 5, osteguna

■ Errege Magoen etorrera, La Salle Berrozpe ikastetxeak antolatuta:
18:30 Zumea plaza.
19:30 Goikoplaza.

Urtarrilak 7, larunbata

■ 18:00-21:00 Bertso poteoa.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Gabon kantari Andoainen

Aita Larramendi ikastolako eta La Salle Berrozpe eta Ondarretako ikastetxeetako irakasle eta ikasleek ez zioten hutsik egin Gabon kantuen usadioari, beste urte batez.

Aurreko egunetan entseguetan gogoz prestatu zituzten abestiak auzoz auzo eskaini zituzten Andoainen. Argazki-bilduma gehiago eta bideoak aiurri.eus gunean ikusgai daude.

Alaken, Olentzero eta Mari Domingi, Hator, Hator, Horra Mari Domingi, Kas kas atean, Olentzero... Eguberriekin lotutako euskal kantagintza Andoaingo bazterretan nonahi entzun ahal izan zen abenduaren 24an. Hiru ikastetxeetako kantarien taldeek ikasleen gurasoak eta musikariak ondoan izan zituzten, eta bi ordu pasako jardunaldia burutu zuten herriko kaleetan zehar. Ondarretako taldeak Bastero plazan egin zuen lehen geldialdia, eta bertan errepertorio alaiari ekin zion. Ondoren, Kale Nagusian barrena jarraitu zuen; Zumea plazaraino iritsi eta berriro ikastetxerako norabidea hartu zuen.

La Salle-Berrozpeko taldea ere gogotsu irten zen kalera, eta ederki urratu zituzten eztarriak bere kideek. Aurrez pentsatutako ibilbidea amaitzeko zorian zirela ikastetxeko bidea hartu behar izan zuten, euriaren mehatxupean. Jolastokian bildu ziren taldeko guztiak, eta bertan txokolate beroaz gozatzeko aukera eduki zuten.

Azkenik, Aita Larramendi ikastolako taldeko kideak, Txistokiko pasealekutik abiatu eta Zumea plazan eta Kale Nagusian kantu erronda egin ostean, Goikoplazara igo ziren.

Hiru ikastetxez gain, makina bat lagun talde aritu zen gabon kantuan. Horien artean, azpimarratzekoa da baserri-giroko auzoetara hurbiltzen den koadrila, bertako biztanleen pozerako.



Ondarretako irakasle eta ikasleak gogotsu ibili ziren kalean gora, kalean behera.



Apain-apain jantzita irten ziren kalera Ondarretako ikasleak.



Olentzero ederki zaintzen dute ikasleek.



Aita Larramendi Ikastolako taldea Kale Nagusian gora, trikitilariak buruan zituela.



Andoingo baserri-giroko auzoak urtero alaitzen saiatzen den lagun koadrilla da hauxe.



Ikastolako ikasle koadrilla Juanita Alkain plazan, alai.



Etxez etxe, dendaz denda eta tabernaz taberna Gabon kantuak zabaldu zituzten lagun taldeetako bat.



Txokolatea hartuz amaitu zuten kantu saioa La Salle-Berrozpeko irakasle, ikasle eta gurasoek.



La Salle-Berrozpeko taldea Bastero plazara iristear. Saio bikaina burutu zuten bertan.



La Salle-Berrozpeko ikasle txikiek alai-alai jardun zuten kantuan.

Gabonetako eskubaloi txapelketa Urnietan



Senior mailako azken partidaren Urigoitia jokalaririk onenak zuten.

Urnietako Kirol Elkartearen eskubaloi sailak Gabonetako eskubaloi txapelketa antolatu du ostiral honetarako. Edizio berri honetan eta Urnietako talde infantil eta kadete neska zein mutilekin batera Leizaran, Tolosa eta Ereintzako jokalariek parte hartuko dute. Partidak kiroldegian eta frontoian jokatuko dira, 25 minutuko iraupena izango dutenak. Partidak goizeko 09:20etan hasiko dira.

Eguedian, 12:50ak aldera, Urnietako Eskubaloi Eskolak Ereintzakoaren aurka 40 minutuko partida jokatuko du. Norgehiagoka honetan alebin mailako neska mutilek parte hartuko dute. Arratsaldean zehar infantil eta kadete mailako partida gehiago izango da.

Iluntzeko 19:15etan eskubaloi jaialdia amaiera emango dion norgehiagoka hasiko da, Urnietako Balergi Harategiko senior mutilen eta estatu mailako zilarrezko

mailan aritzen den Tolosa CFren artekoarekin.

Ostiralean, beraz, eskubaloi jardunaldi zirrargarria bizi ahal izango da Udako kiroldegian zein frontoian. Klubetik eskubaloizale guztiak partidak ikustera gonbidatu nahi dituzte.

URIGOITIARI OMENALDIA

Urnietako Leizaran senior mailako azken partidaren **Gorka Urigoitia** jokalaririk onenari omenaldia egin zioten. 42 urteko jokalaririk hernaniarrak 20 urtez kamiseta gorritxoaren defendatzaile ostean, ekainean erretiroa hartu zuen. **Urnietako** eta **Leizarango** taldeez gain, omenaldian Gorkaren taldekide ohi ugari hartu zuen parte. Horieta batek, **Juanjo Agudok**, aureskua dantzatu zion. **Victor Rodriguez** eta **John Sanchezek** opariak eman zizkion, besteak beste, taldeko jokalariek sinatutako kamiseta. Urigoitiak, hunkituta, jasotako txalo zaparrada itzuli zien zaletuei.

Ipar Haizeak antolaturiko bilkura Zumea plazan



Plataformako hainbat kide Udako ordezkariarekin batera.

Ipar Haizea plataformak deituta, abenduaren 26ko iluntzean kontzentrazioa egin zuten erraustegia martxan jartzeko prozedura eta erraustegia bera kritikatzeko. Andoingo eta Euskadi mailako ordezkari politikoak hurbildu ziren Zumea plazara. Dozenaka herritarrez gain, deialdira

Ana Carrere alkatea, **Olga Hernandez** Ganemoseko zinegotzia, **Jorge Mourinho** Irabaziko zinegotzia, **Tere Santana** Andoingo Podemoseko ordezkaria, **Nagua Alba** Podemoseko Kongresukidea Madrilan edota **Monika Monteagudo** Equoko Gipuzkoako bozeramailea hurbildu ziren.

EZ GAUDE UDAN FEST MUSIKA JAIALDIA ANDOINGO GAZTETXEAN



The WC Grooves Andoingo Gaztetxeko taula gainean, aurreko abenduaren 23an.



Pheasant's Tears. Joxe Caballero baxu jotzaileak lxo taldearekin jo zuen ere. Bigarren taldean batera jo zuen.



SaioNaiz taldea. Kontzertuko argazki gehiago aiurri.eus gunean ikusgai daude.

Etxeko obradorean egindako ogia, pastelak, pastak, ...

Zorionak eta urte berri on!

arruti

gozotegia



Zumea 18 - Andoain - 943 593 777 - arrutigozotegia@hotmail.com

URNIETAKO UDALA

Inbertsioetarako milioi bat euro aurrekontu berrian

2017rako 9.107.630 euroko Udal aurrekontua onartu zuten Urnietan, abenduaren 22an egin zuten ez-ohiko osoko bilkuran. Kopuruan aurreko urteetatik ez da asko urruntzen, eta bederatzi milioi euro ho-

rietatik milioi bat inbertsioetarako erabiliko dutela iragarri zuten. EAJ-PNVren botoekin onartu zen aurrekontu proposamena, EH Bilduk eta PSEk aurka bozkatu baitzuten.

Mikel Pagola alkateak adierazi bezala, Udalaren eta bere sozietate publikoen aurrekontua 2016koaren "antzekoa" da eta, "ia kopuru berdinetan" mantentzen dela esan daiteke. Urnietako Udalaren berezko diru sarrerak murriztu egin dira, herritarrei presio fiskala gutxitzeko erabakia hartu delako. Baina Gipuzkoako Foru Aldundiak Udalen finantzaziorako zuzentzen duen diru kopuruaren bidez, sarrera horietan igoera bat egongo dela aurreikusi dute eta, ondorioz, Udalak "bere gastu ahalmena mantenduko du".

INBERTSIOAK, PARTE HARTZE PROZESUA
Aurrekontu honetan, inbertsioetarako 1.000.000 euro izango direla nabarmendu dute. Gainera, urteko lehen hilabeteetan martxan jarriko den parte hartze prozesu bati esker, 100.000 euro gehiago bideratuko dira. Ondorioz, kopuru honek inbertsioetarako partida handitu egingo du.

"2017ko plan berrien garapenean herritarren partaidetza bermatu nahi dugu", azpimarratu zuen alkateak. Hala nola, II.Berdintasun Planarekin, Aniztasun Diagnostikoarekin eta Lehen Harrera planarekin.

Horrez gain, Eskualdeko garapen agentziari garrantzia emango diote: "lankidetzaz hitzarmen bat sinatuko du-



Urrakan igogailua ipiniko dute, herrian barrena ibiltzeko mugikortasuna sustatze aldera.

gu aurrera begira obligazio eta konpromiso batzuk hartzera behartzen gaituena". Zentzu horretan, enplegua sustatu eta garapen ekonomikoan lan eginez jarraituko zutela hitzeman zuen alkateak.

Gizarte sailaren erronka nagusia erronka berriei aurre egitea izango da. Menpekotasun eta bazterkeria arriskuan egon daitezkeen herritarren oinarriko eskubide eta beharrak bermatzea izango da Udalaren ahalegina.

Inbertsio nagusiak Txoritagain auzoko aparkaleku berria eta Urrakako igogailua izango dira

Bestalde, 2016an udaletxearen egunerokotasunean euskararen presentzia areagotzeko urratsak ematen hasiko dira. Era berean, 2017-2018 ikasturtean euskara ikasteko beharrezko baliabide ekonomikoak bideratuko dituzte.

Lurralde mailan egingo diren inbertsio nagusiak Txoritagain auzoko aparkaleku berria eta Urrakako igogailua izango dira. Udal eraikinetan ere zenbait hobekuntza egingo dituzte: "Jostaleku edo Ludotekan mantentzen diren lanak, Sarobe nahiz Lekaion jasangarritasun energetikoaren aldeko apustua...".

Ingurugiroari dagokionez, bilketa selektiboaren portzentaia areagotzeko neurriak hartuko dira. Horretarako, edukiontzi sistemak aldatuko dira. Sarraila elektronikoa duten edukiontziak ipiniko dira eta errefusaren edukiontziak irekiera egunak zenbatera mugatu beharko diren erabakitze beharrezko azterketa egingo da.

Bestalde, bizikidetzaz eta elkarbizitzaz herrian lantzen jarraituko dute, Bake-tik-ekin elkarlanean.

EH Bilduren balorazioa

EH Bilduk hainbat desadostasun agertu zituen aurrekontu proposamenarekin. **Itziar Artola** bozeramaileak adierazi zuenez, Udalak Fondo Foraletik 300.000 euro gehiago jasoko ditu: "Horrek, aurrekontu osoa %3 igotzea suposatuko luke, baina aurkeztutako aurrekontuetan %0,2ko igoeran islatzen da soilik. Zenbait murrizketa ontzat ematen ditugun arren, 90.000 euro suposatzen duen beste jaitziera erraustegiaren finantzaziora bideratzearekin ez gaude ados". Errauskailuaren finantzazioak eta tratamenduak Udalari guztira 8.666.979.90 euro suposatuko dizkiola gaineratu zuen, urteko 247.628 euro hain zuten.

Etxebizitza arazoari dagokionez, aurre egiteko partidarik zehaztu ez izana

salatu zuten. "EH Bildutik argi utzi nahi dugu etxebizitzaren arazoari aurre egin behar zaiola, eta ez beste alde batera begiratu".

Bestalde, herriko elkarteak herriari nortasuna ematen diotenak direla nabarmendu zuten, "bertan dagoen jendeak herriarentzat egiten duen lanari esker". Hori horrela, Udalak "proaktiboagoa" izan behar duela uste dute: "Laguntza ekonomiko eskasak jasotzen dituzte eta azken xentimoa ere negoziatzen zaie".

Desadostasun hauen aurrean, EH Bilduko taldeak hainbat proposamen zehatz egin zituen: "Guk egindako proposamenak entzun dituzue, baina ez duzue proposamen zehatzak negoziatzeko jarrerarik izan", salatu zuten.

PSE-EEren balorazioa

PSE-EEren izenean, **Consuelo Frutos** 2017ko aurrekontua "azken ordukoa" bezala izendatu du, Gobernu taldearen aldetik ez zaiolako "nahikoa" denbora eskaini: "Ezarririk datak betetzen dituen arren, udal txeko talde politikoei ez zaie parte hartzeko denborarik eman. Gainera, Gobernu taldeak ez dio aurrekontu erreala osatzeko nahikoa denbora eskaini. Hala, ideia, proiektuak eta kudeaketa falta dituela eta aurreko urteko aurrekontuaren kopia dela salatzen dugu". Horrez gain, Legegintzaldi-planari lotutako aurrekontua dela adierazi dute: "Guk Legegintzaldi-planean aurkeztutako 60 proiektuetatik bakar bat ere ez du biltzen".

Aurrekontu hauetan inbertsio estrategikoak "nabarmentzekoak" direla adierazi zuen: "Gai honetan desadostasun asko ditugu. Esate baterako, herritar guztientzako kiroldegia nahi dugu, eta ez klub batentzat eginikoa. Igogailuari dagokionez, beste modu batera egin daitekeela uste dugu. Hirigintza eta ikusgarritasun aldetik atseginagoa izan daitekeena".

Aurrekontuak "sinestezinak" direla salatu zuten: "Aurkako botoa emango dugu ez gatozelako Legegintzaldi-planarekin eta inbertsio estrategikoekin bat. Eta, batez ere, Urnietako alkateak eta bere Udal taldeak gaur aurrera aterako dutena betekoz ez dutela sinetsita gaudelako".

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larrañaga
Kultur Buzina

INISTORRI

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritzaren

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek
bi udalerrri hauen
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOAINGO UDALA

Urrieta

Argitaratzailea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Aiurri eskuragarri:

Etzez etzeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urrietan, 30 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.eus
Webgunea: www.aiurri.eus

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.eus
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeba
Lizeaga, Izarne Olano
eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trubuelo eta
Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.eus
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Zorion agurrak,

merkatu txikia:
diseinua@aiurri.eus
www.aiurri.eus
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea,

banaketa
arduraduna:
Garbiñe
Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus
Tel.: 943 300 732

Banatzaleak:

Mikel Arregi
(Andoain), Isabel
Salaberria (Urrieta).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia.
Huarte-Iruñea.

Agenda

ABENDUAREN 29TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.eus

Zinema

Andoain, Bastero

- "Animales fantasticos"
Urtarrilak 1. 19:30.
Urtarrilak 2. 19:30-22:00.
Urtarrilak 3. 19:30.

Urrieta, Sarobe

- "Ice Age. Gran cataclismo"
16:00, 18:30.
Urtarrilak 8, igandea.

Antzerkia

Urrieta, Sarobe

- "Idiot Txou". Josean Bengoetxea, Asier Hormaza, Dorleta Urretabizkaia.
19:30 Gaztelaniaz. 5 euro.
Urtarrilak 4, asteazkena.

Erakusketak

Andoain, Bastero

- "Esku azpi begi" hiru artista gazteren eskutik.
Azken eguna:
Abenduak 30, ostirala.
- "Ontza"ren historia argazki bidez. Azken eguna:
Urtarrilak 7, larunbata.

Kanpaina

Andoain

- Salkinen Eguberrietako kanpaina, Gabonetako 45 saski irabazteko aukera.
Urtarrilaren 5a arte.

Aurkezpena

Donostia Ospitala

- "Eremu pediatrikoen gizarteratzea" egitasmoaren aurkezpena, zeinean Super H taldeak parte hartu duen.
10:30 Hirugarren solairua.
Abenduak 29, osteguna.

Zirkoa

Andoain, Bastero

- **IkusZirkus**
Zirkoari dagokion zikloa, ohi bezala, Eguberrietan.
Azken saioa:
"Emportats",
La Trócola Circ.
20:00 Bastero.
Abenduak 30.

Zerbitzuak

Urrieta

- Liburutegiko eta Lekaioko ordutegia, Eguberrietan:
09:00-14:00.
Urtarrilaren 5era arte.
- Gela bat ikasgelarako egoituko dute, lehenengo lau hilabeteko azterketa garaian.
Astelehenetik ostiralera.
08:00-21:00 Lekaioko.
Urtarrilaren 27ra arte.

Andoain

- Ohiko ordutegia, Errege egunaren bezperan ezik:
10:00-14:00.
Urtarrilak 5, osteguna.

Dantza

Urrieta

- "Hip hop: Sergio Nguema".
Plaza mugatuak dira, eta izen-ematea zabalik dago Saroben bertan.
Goizez. Sarobe.
Abenduak 30-Urtarrilak 5.

Bilkura

Andoain

- "Etxean nahi ditugu" enkartelada.
19:00 Goikoplazatik.
Abenduak 31, larunbata.

Eguberriak

Andoain, Urrieta

- Andoaingo eta Urrietako hitzordu guztiak Aiurri astekari honetan, 6-7. orrialdeetan.
Abenduak 29-Urtarrilak 8.

Gazte Astea

Andoain

- Gazte Lokalaren eskutik jarduera ugari.
Abenduak 30.
Urtarrilak 3-4.

Farmaziak

Andoain

- **Zatarain.**
Gauzez: **Ansa.**
Abenduak 31, larunbata.
- **Pajares.**
Gauzez: **Etxebeste** (Hernani).
Urtarrilak 1, igandea.
- **Diaz.**
Gauzez: **Etxebeste** (Hernani).
Urtarrilak 6, ostirala.

Urrieta

- **Aguado** (Astigarraga).
Gauzez: **Urrutia** (Hernani).
Abenduak 31, larunbata.
- **Gomez** (Hernani).
Gauzez: **Etxebeste** (Hernani).
Urtarrilak 1, igandea.
- **Urrutia** (Hernani).
Gauzez: **Etxebeste** (Hernani).
Urtarrilak 6, ostirala.

Odol-emaileak

Urrieta

- 18:30-20:30 Anbulatorioa.
Urtarrilak 9, astelehena.

Andoain

- 18:30-20:30 Anbulatorioa.
Urtarrilak 12, osteguna.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Zorionak etzeko guztien partetik, **Juanma!** Meretz bezala ospatuko dugu hilaren 31n.

ANDOAIN

ZORIONAK



Errege egun ostean iritsi zinela 9 urte jada, **Xiker.** Ez aldatu txapel-dun! Muxu pottolo, aitaxo, amatxo eta Ganix.

ANDOAIN

ZORIONAK



Abenduaren 30ean **Nerea** etzeko txikienak 18 urte. Jarrai ezazu orain arte bezala bizitzaz gozatzeko. Muxu asko. Maite zaitugu.

ANDOAIN

ZORIONAK



Oso erraza da, eta dohainik. Emailaz edota eskuko telefonoa erabilita azkar batean bidal daiteke. Emaila: diseinua@aiurri.eus
Whatsappa: **619 163 537**

Aiurri

DATORREN ASTEAN EZ DA AIURRIRIK ARGITARATUKO

Hauxe izan da urteko azken **Aiurri** astekaria. Datorren urteko lehena urtarrilaren 12an argitaratuko da. Urte berri on!

Txertatu merkatuan

Postontzia

Beterri Buruntza Udalak

Proiektuak Euskadi laneratzen eta gizarteratzen laguntzeko aukerak eskaintzen dizkie 500 gazte baino gehiagori. Garapen, garapen agentzien Euskal Elkarteak, 2016-2018 urte bitartean egingo den proiektuaren konpromisoa hartu du. Hiru urteko ekintza honetan, hiru proiektu ezberdin burutuko dira. Ekintza hau Txertatu merkatuan proiektuaren baitan egin da Gazte Enplegurako 2014-2020 Programa Operatiboaren bidez.

Andoaingo Udalak, Beterri-Buruntzako eskualdeko udalen ordezkarietan, Txertatu merkatuan programaren kudeaketaz arduratuko da. Beterri-Buruntza eskualdeak, Gizarte eta lan orientazio eta integrazio teknikak lantzeaz gain, lan bertikaleko formakuntza proposatu du gazteen interesa izango delakoan.

Langabezian dauden eta ikasten ari ez diren 21-29 urte

bitarteko gazteak, beti ere kualifikazio gutxikoak, parte hartu ahal izango dute.

Aurten, esan bezala, lan bertikaleko proiektua burutuko da. Urtarrilaren 31n hasiko da eta ekainaren 9ra arte iraungo du. Guztira 12 pertsona parte hartu ahaliko dute, Beterri-Buruntzako udalerriko gazteek lehentasuna izango dutelarik. Formakuntzaren edukia:

- Gizarte eta lan orientazio eta integrazio teknikak.
- Espezialista soka bidezko sarbide teknikan (IRATA nazioarteko ziurtagiria lortzeko aukerarekin).
- Praktikak burutzeko behar diren beste hainbat formakuntza.

Formakuntzaz gain, 180 orduko praktikak burutu behar dira.

Izen-ematea:

Urriegin Etxea. La Salle Etorbidea, 6. 09:00-15:00. 943 30 42 21 txertatumerkatuan@andoain.eus

Epea:

Urtarrilak 30.



AIURRI



Eguberri eta Urte berri on!

aiurri.eus